

Bigarren Errepublika

aurkibidea

1. Errepublika ezartzea

- 1.1. Behin-behineko gobernuak
- 1.2. Lehenengo ekimen erreformistak
- 1.3. Prozesu konstituziogilea

2. Biurteko erreformista

- 2.1. Nekazaritzaren erreforma
- 2.2. Erljioaren auzia
- 2.3. Autonomiak
- 2.4. Erreforma militarra
- 2.5. Hezkuntzaren erreforma
- 2.6. Azañaren gobernuaren krisia

3. Eskuindarren biurtekoa

- 3.1. Erreformismoaren kontrako politika
- 3.2. Indar politikoen berrantolatzea
- 3.3. Politika eskuindarraren erradikalizazioa
- 3.4. 1934ko urriko iraultza
- 3.5. Gobernuaren egonkortasun eza eta biurteko eskuindarraren amaiera

4. Fronte Popularra

- 4.1. Gobernuaren erreformak eta gatazka soziala
- 4.2. Errepublikaren kontrako konspirazioa

5. Aldaketa sozialak eta kulturalak

- 5.1. Literatura arloko abangoardiak
- 5.2. Kulturaren zabaltzea
- 5.3. Emakumeen zeregina
- 5.4. Arte adierazpenak



Ezaugarri nagusiak

Primo de Riveraren diktaduraren ondoren, Euskal Herriak eta Espainiak errepublika ezartzea aukeratu zuten, bide demokratikotik, erregimen horrek gizartearen arazo larriak konponduko zituen itxaropenaz. Hasieran, erdi mailako klasekoak gailendu zitzaizkien oligarkia taldeei gobernuko ordezkaritzan eta aginpide politikoan. Aurrerago, ordea, eskuineko indar autoritarioak botere gehiago eskuratzen joan ziren; izan ere, sozioekonomian eta autonomien auzian lorpen handiak egin ziren, baina erreformak ez ziren uste bezain bizkor gauzatu, eta etsipenak hartu zituen herritarrak. Ekonomiaren egoera ez zen batere ona; faxismoak indarra hartzen ari ziren; politika erreformistak oso mantso aplikatzen ari ziren; eta, batez ere, euskal eta espainiar gizarteak ez zeuden errepublikaren erregimenak zekartzan aldaketak bere gain hartzeko prestatuta. Arrazoi horien guztien ondorioz, huts egin zuen errepublikaren esperientziak, eta nagusitu egin zen Franco jeneralaren altxamendu militarra. Altxamendu hark anaia arteko borroka latza ekarri zuen, Gerra Zibila.



1.1 II. Errepublika aldarrikatzen, Eibarko kaleetan.

1. Errepublika ezartzea

1931ko apirilko udal hauteskundeetan alderdi errepublikazaleak izan ziren garaile, probintziako hiriburu gehienetan. Hauteskundeen emaitzen berri jakin zelarik, Errepublika aldarrikatu zuten Eibarren, apirilaren 14an; eta gauza bera egin zuten, ondoren, Bartzelonan eta Madrilan. Gero, Alfontso XIII.a erbesteratzeko negoziazioak egin ziren, eta horrela amaitu zen monarkiaren garaia.

Hauteskundeetan lortutako garaipenak 1930ean erregimen monarkikoaren kontra Donostiako Hitzarmena sinatu zuten alderdien indarra berretsi zuen. Monarkiatik errepublikarako trantsizioa bake bidez egin zen, eta sistema politiko berriak Primo de Riveraren diktaduraz gero herrialdeak zuen egoera sozial eta politiko larriari irtenbidea emango zion itxaropena zuten herritarrek.

1.1. Behin-behineko gobernu

1931ko apirilaren 14an behin-behineko gobernu osatu zuten. Niceto Alcalá Zamora zen gobernu haren buru, eta koalizio errepublikazale-sozialistako kideak ziren ordezkari: errepublikazale kontserbadoreak —Alcalá Zamora eta Miguel Maura—, erradikalak —Alejandro Lerroux—, errepublikazale ezkertiarak —Manuel Azaña—, sozialistak —Indalecio Prieto eta Francisco

1.1 Errepublika banderaduna, Eibarren.



Largo Caballero—, besteak beste. Behin-behineko gobernuak herrialdea eraldatzeko ardura zuen, eta premia zuten neurri hartu zituen, arazo sozial, ekonomiko, militar eta autonomiko larrienei berehalako irtenbidea emateko. Era berean, hauteskundeetarako deia egin zuen, Gorte Konstituziogileak eratu eta konstituzio berria idazteko, hain zuzen.

Errepublika garaiko indar politiko nagusiak

EZKERREKO ALDERDIAK		ESKUINEKO ALDERDIAK	
Izena	Buruzagiak	Izena	Buruzagiak
ALDERDI ERREPUBLIKAZALEAK			
Acción Republicana	Manuel Azaña	Partido Radical Republicano	Alejandro Lerroux
Partido Republicano Radical Socialista	Marcelino Domingo	Partido Republicano Conservador	Niceto Alcalá Zamora
Unión Republicana	Diego Martínez Barrio	Partido Liberal Demócrata	Melquiades Álvarez
		Confederación Española de Derechas Autónomas (CEDA)	Jose María Gil-Robles

ALDERDI AUTONOMISTAK EDO ESKUALDEKOAK

Organización Regional Autonomista Gallega (ORAGA)	Santiago Casares Quiroga	Lliga Regionalista de Catalunya	Francesc Cambó
Esquerra Republicana de Catalunya	Francesc Macià eta Luis Companys	Derecha Regional Valenciana	Luis Lucía
Partido Catalanista Republicano	Nicolau d'Olivier	Eusko Alderdi Jeltzalea (EJLJ-PNV)	Jose Antonio Aguirre

LANGILE ALDERDIAK ETA ERAKUNDEAK

Partido Socialista Obrero Español (PSOE)	Francisco Largo Caballero, Julian Besteiro eta Indalecio Prieto	Unión General de Trabajadores	
Partido Comunista de España	Dolores Ibaruri eta Jose Diaz	Confederación Nacional del Trabajo (CNT)	
Federación Anarquista Ibérica (FAI)		Partido Obrero de Unificación Marxista (POUM)	Andrés Nin

ALDERDI MONARKIKOAK

Renovación Española	Jose Calvo Sotelo
Comunión Tradicionalista	Manuel Fal Conde

ALDERDI AUTORITARIOAK

Juntas Ofensivas Nacionales Sindicalistas (JONS)	Ramiro Ledesma Ríos eta Onesimo Redondo
Falange Española	Jose Antonio Primo de Rivera



1.2 Niceto Alcalá Zamora, II. Errepublikako lehendakaria.

1.2. Lehenengo ekimen erreformistak

Konstituzioa onartu aurreko hilabeteetan, behin-behineko gobernuak erregimen berria bermatzeko oinarritzko jotzen zituen neurriak jarri zituen abian.

a) Erreforma militarra

Armadak eragin, botere eta baliabide askotxo zituen, eta nagusitasun horrek beldurra ematen zien errepublikazaleei, erregimen berriaren egonkortasuna kolokan jar zezakeela eta. Beldur horrek bultzatuta, armada eraberritzeko neurriak hartu zituen Azañak. Indar armatuak gobernuaren aginpide zibi-

1.2.a Errepublika-sozialisten kabinetearen kideak.



Iturria: Urtekar militarra, ondorengoan jaso: Penie, S. G.: Los militares y la política en la España Contemporánea. Ruedo Ibérico, 1976, 432-433 orr.

Azañaren erreforma militarra

	1930		1932		1933		1934	
	Penintsulako armada	Marokoko armada	Penintsulako armada	Marokoko armada	Penintsulako armada	Marokoko armada	Penintsulako armada	Marokoko armada
Jeneralak	163	5	84	3	83	3	83	3
Ofizialak	12 600	2 365	7 697	1 756	7 773	1 509	7 771	1 509
Ofiziordeak	7 793	2 477	7 149	1 930	8 036	1 686	8 036	1 686
Soldaduak	109 588	56 392	98 218	39 844	105 639	33 762	105 654	33 762


laren mende jarri zituen, nabarmen murriztu zuen ofizialen kopurua, eta behar berriek eskatzen zuten armada egokitu zuten armada. Hiriko polizia taldea —Erasoko Guardia— sortu zuen, baina, ordena publikoaren esparrua arautzeko legerik ez zegoenez, armadak eutsi zion gizarte gatazketan ordura arte izandako errepresioaren monopolioari.

b) Nekazaritzaren erreforma

Espainia herrialde nagusiki nekazaria zen 1931n. Eta iraultzarako potentzial bikaina eskaintzen zuen nekazaritzak, latifundismoa, lurjabeek haien lurak ez lantzea eta soldatepeko nekazarien ugaritasuna eta haien egoera kaskarra zirela eta. Gainera, alde batetik, anarkistek nekazari guneetara bideratzen zuten haien propaganda, eta, bestetik, lurjabe handiak eskuineko alderdietan elkartuta eta antolatuta zeuden. Hortaz, Errepublikak bere gain hartu behar izan zuen nekazariak XIX. mendeaz gero eskatzen ari ziren neurriak indarrean jartzeko ardura. Bestalde, 1929ko munduko ekonomia krisiaren eragina sumatzen hasia zen Espainian eta Hego Euskal Herrian ere, eta gora egin zuen langabeziak, lurjabe ez ziren nekazarienak batez ere. Nekazaritzaren erreforma sustatzeko zenbait dekretu eman zituzten 1931ko apirilaren eta maiatzaren artean; dekretu horiek, halere, bi aldeetan izan zuten erresistentzia: lurjabeen aldean, erreformaren kontra zeudelako, eta nekazarien aldean, erreforma atzeratuta zeto-rela-eta haserre zeudelako. Nolanahi ere, neurri horietan aipagarri izan zen *Nabitatezko Laborantza Dekretua*; dekretu haren arabera, lurjabeak behartuta zeuden beren lurak eriter, lur saila zegoen herriko jornalariak kontratatzea, zortzi orduko lanaldia ezartzera, eta gutxieneko soldata bat finkatzera. Nekazaritza arloko arazoak konpondu eta langabezia gero eta handiagoari irtenbidea eman nahi zioten horrela. Azkenean, nekazaritzaren erreformarako legearen eztabaida egin zen, baina ez zuten onartu 1932. urtera arte.

1.2.b Manuel Azaña, nekazaritzaren erreformaren bultzatzailea.





1.2.c Segura kardinalaren argazkia.

c) Erlijioaren auzia

Militarren auziarekin batera, Elizaren aginpi-dea mugatzea izan zen errepublikazale-sozialisten kabinetearen politika erreformistaren ardatzetako bat. Azañak murriztu egin nahi zuen Eliza katolikoak gizarteko hainbat esparrutan zuen eragina, eta hainbat lege eman zituen horretarako: ezkontza zibila eta dibortzioa onartzen zuena, erlijioaren nahitaezko irakaskuntza bertan behera utzi zuena, eta jesuiten ordena boteretsua desegiteko balio zuena, adibidez. Neurri horien kontrako erreakzioaren burua Pedro Segura kardinal primatua izan zen; Segurak erregimen berriaren kontrako eta monarkiaren eta erlijioaren aldeko pastoralak idatzi zuen. Pastoral hark sutu egin zituen elizaren kontrakoak, eta 1931ko maiatzaren 11n ehundik gora komentatu eta elizaren eraikin erre zituzten Espainia guztian. Azkenean, Segura kardinala herrialde-egotzi zuten, eta erabaki hark, elizaren kontrako ekintzek eta gobernuak ekintza haiek zapaltzeko garaian erakutsitako epelkeriak nabarmen areagotu zuten katolikoek eta errepublikazaleen arteko tentsioa.

1.2.d Kataluniako Generalitatearen ikuspegia.



1.2.d Frances Macia.

d) Kataluniako autonomiaren auzia

Nazionalitateak, katalana eta euskalduna bereziki, errepublika estatuarekin artikulatzeko bideak aurkitu beharra zegoen, 1930eko Donostiako Hitzarmena sinatu zenez gero batez ere. Kataluniari dagokionez, Kataluniako Ezker Errepublikazaleak (ERC) irabazi zituen 1931ko apirilko hauteskundeak, eta horren esku gelditu zen Kataluniako buruzagitzaren politikoa. ERCK Pi i Margallaren tradizio federalistari eutsi zion, eta katalanismo erradikalaren bidetik abiatu zen; hau da, burujabetza eta autodeterminazioa aldarrikatzen zituen. Katalanismoak zeresan handia izan zuen Donostiako Hitzarmenean, eta, Kataluniako estatutuaren auziari buruzko eztabaidari eman zion lehentasuna parlamentuak, nekazaritzaren erreformarekin batera. Auzi horren azterketa aurreratu egin behar izan zuten, efektu-kolpe baten ondorioz: apirilaren 14an, ERCKo buruzagi Francesc Maciak Kataluniako Errepublika aldarrikatu zuen, Espainiako Errepublikaren barruan, Madrillgoa baino ordu batzuk lehenago. Aldarrikapenak sortutako krisia berehala konpondu zuten, eta Maciak Katalunia Espainiako Errepublikan sartzea onartu zuen, Kataluniarako estatutua berehala ematen bazuten. Behin-behineko gobernuak dekretu bat eman zuen 1931ko apirilaren 17an, Katalunian Generalitat berriro indarrean jartzeko, eta gobernu autonomoa aitortu zuen. Ekainean, Generalitateak hala eskatuta, estatutuaren aurreproiektua idatzi zen, *Nuriako Estatutu* izenekoa; proiektu hura abuztuaren bozkatu zuten, eta onartu, Katalunian. Hurrengo urratsa, Gorteei onespina ematea zen, Errepublika artean konstituziorik gabe zela (abenduan onartu zen konstituzioa).

1.2.c

Erlijioaren auzia, Azariaren arabera

«Espainiak katoliko izateari utzi dio [...]». Ezin onar dezaket, diputatu jaunak, honako hau erlijio auzia dela esatea. Benetako erlijio auziak ez du norberaren kontzientziak hara iritsi behar, norberaren kontzientzian formulatzen baita gure patruaren misterioaren galdera, eta esparru horretan bertan erantzun behar baita. Auzi politikoa da hau, Estatuaren osakeria, oraintxe baita gure estatua erlijioz eta erlijioaren zantzu guztiek gabetua. Gure estatua alde batera uzten baititu barne kezka guztiak eta fideltasunaren zaintza, eta kendu egin baititu elizari estatu zaharrari hain zerbitzu handiak eman zizkion beso sekular hura. Estatu zaharrak bere gain hartzen zuen kontzientziak osatzeko zeregina, eta, arimak, haien borondatearen kontra bazen ere, salbazioaren bidera erakartzeko tresnak eskaintzen zituen. Gure eginbeharra, ordea, Espainiako estatua finkatu berri ditudan oinarrien arabera antolatzea da, hori besterik ez [...]»

Gortetako saioen egunkariak. 1931ko urriaren 13a. Azaña, M.: *Obras completas*, 2. alean. Giner, Madril, 1990, 81. or.

1.2.e

Mitina, Eibarko zezen plazan. Parte-hartzaile izan ziren, besteak beste, Indalecio Prieto, Miguel de Unamuno, Victoria Kent, Jose Antonio Agirre, Rodolfo Llopi eta Santiago Casares Quiroga.

e) Euskal autonomiaren auzia

Euskal estatutua eratzeke ekimenaren aitzindaria Jose Antonio Agirre, Getxoko alkatea, izan zen. Agirre gizarte erreformen alde zegoen, eta joera demokratiko-burgesaren jarraitzaile zen. Lehen euskal lehendakaria izango zenak agiri bat idatzi zuen, Bizkaiko alkateekin batera; agiri horretan, EAJ alderdiak Errepublika ezagutzen zuen, eta, ildo horri jarraituz, EAJk behin-behineko gobernuarekin elkarrizketak ere egin zituen, autonomia onar zezan eskatzeko. 1931ko maiatzaren 31n, Eusko Ikaskuntzak batzorde bat eratu zuen, hiru euskal probintziatarako eta Nafarroarako autonomia proiektu bat idazteko; idatzi hark behin-behineko gobernuaren babesa izan zuen. Sozialistek eta errepublikazaleek eragozpen bat jarri zioten, ordea: Elizaren eta estatuaren arteko harremanei zegokiena. Izan ere, proiektu hartan, Autonomia estatuaren eskumeneko jotzen zen arlo hori, eta, behin-behineko kabinetearen arabera, Errepublikaren zeregina zen hura. EAJk onartu egin zuen proiektua, baina erabateko askatasuna nahi zuen erlijioaren auzian, karlismoarekin bat eginik. 1931ko ekainaren 14an Batzarra egin zuten euskal abertzaleek Lizarran, Lizarrako Estatutua onartuz, eta euskal lurraldeak Eliza-Estatua arteko harremanetan zuen autonomiari eta Vatikanorekin konkordatu sinatzeko eskubideari buruzko zuzenketa sartu zuten. Lizarrako Estatutuan nazio askapenaren aldeko adierazpena agertzen zen arren, EAJk eta tradizionalistek erlijioaren defentsan bat

1.2.e

Jose Antonio Agirre.



1.2.e

Lizarrako Estatutua


«1. artikulua. Arabako, Gipuzkoako, Nafarroako eta Bizkaiko gaur egungo herrialdeek osatzen duten Euskal Herria entitate naturala eta juridikoa dela eta nortasun politiko berezia duela aitortzen da; eta, beraz, Espainiako Estatuaren barruan Estatu Autonomo gisa antolatzeke eta bere burua gobernatzeke eskubidea ezagutzen zaio. Estatutu honetan hitzartutako Harremanetarako Legearen arabera lotura izango du Espainiako Estatuarekin. Probintzia horietako bakoitza, bestalde, era autonomoan antolatuko da, eta bere burua gobernatzeko ahalak izango ditu, herrialdearen batasunaren barruan, betiere.

15. artikulua. Euskal Estatutuak [...] eskumena izango du legeak emateko, administratzeko eta epaitzeko, eta bere legeak eta dekretuak, eta Auzitegi eta Epaitegiaren erabakiak betearaziko ditu, arlo hauetan [...] Euskadiren antolaketa eta autonomia erregimena [...]; justiziaren antolaketa eta administrazioa [...]; zerga eta ekonomia erregimena [...]; segurtasun publikoa eta defentsa [...]; osasuna eta higieena [...]; irakaskuntza [...]; gizarte legegintza eta lan arlokoa [...]; ongintza [...]; herri lanak [...]; legegintza zibila, hipotekei buruzkoa, prozesala eta notariala; elizaren eta Euskal Estatuaren arteko harremanak, Estatu horrek Vatikanorekin Konkordatu hitzartuta [...].

16. artikulua. Euskaldunen hizkuntza nazionala hizkuntza ofiziala izango da, gaztelaniaren baldintza berean [...].»

Lizarrako Estatutua (1931ko ekainaren 14a), *Historia General del País Vasco*. xii. alean. *La Gran Enciclopedia Vasca*, Bilbo, 26-28. or.

Gorte Konstituziogileetarako hauteskunde emaitzak (1931)



1.3. Prozesu konstituziogilea

a) Gorte Konstituziogileak

Gorte Konstituziogileak osatzeko 1931ko ekainaren 28an egin ziren hauteskundeetan, gehiengo eskuratu zuten behin-behineko gobernuko buruzagiek: errepublikazale ez-kertiarrek eta sozialistek. Hego Euskal Herrian soilik izan ziren irabazle eskuineko alderdiak, EAJ buru zutela.

Gorte Konstituziogileek, Julian Besteiro sozialistaren zuzendaritzapean, behin-behineko gobernuari sostengua eman zioten, eta parlamentu batzorde bat sortu zuten, Konstituzioa prestatzeko.

Manuel Azaña, gobernuko presidentea, eta Francesc Macia, Errepublikako presidentea, 1931n.



1.3.a Niceto Alcalá Zamora, Gorteen zabalitze ekitaldian.

b) 1931ko Konstituzioa

Konstituzioaren testua zehazteko eztabaida luzeak izan ziren; 1931ko abenduaren 9an onartu zuten. Konstituzio hark oinarritzko printzipio demokratiko bat jaso zuen: gizonezkoentzako eta emakumezkoentzako sufragio unibertsala.

Konstituzio ezkertiarra zen, nabarmen-nabarmen, eta honela definitzen zuen Errepublika: klase guztietako langileen elkarte, demokratikoa, aurrerazalea eta deszentralizatua, hau da, Estatu integrala edo bateratua, eskualde autonomiaduna, eta erlijio ofizialik gabea, hots, errepublika laiko bat.


Konstituzioak ekarri zituen berrikuntzen artean, nabarmentzekoa da emakumeei botoa emateko eskubidea ezagutu zitzaiela, Espainiako historian lehen aldiz; gainera, izaera bereziko autonomia eskualdeak aitortzeko oinarriak jarri zituen: Kataluniak 1932. urtean lortu zuen Estatutua, eta Gerra Zibilean onartu ziren euskalduna eta galiziarra. Bestalde, eskubide indibidualak eta politikoak ere ezagutu ziren, honako hauek, adibidez: legea, herriaren borondatearen adierazpen bide; Espainia Zuzenbide estatu; erlijio askatasuna; eta jabetza pribatu indibidualak mugatzea, nazioaren ekonomia mesedetan. Errepublikako botere antolaketan berrian, parlamentu erregimena ezarri zen, eta, horrela, herriaren burujabetza Gorteen edo Parlamentuaren esku gelditu zen; parlamentuak zuen aginpide legegilea bere esku. Era berean, Konstituzioaren Berme Auzitegia sortu zuten, Konstituzioa betetzen zela ikuskatzeko.

2. Biurteko erreformista

Azaña buru zuen gobernuak, ezkerreko indar errepublikazaleak, sozialistak eta nazionalistak biltzen zituen, biurteko erreformista izenez ere ezagutu zen. Izan ere, 1931ko urritik 1933ko irailera bitartean erreforma egitasmo zabala jarri zuen abian, behin-behineko gobernuak proposatuta zeukanari jarraituz; Espainiaren eta Hego Euskal Herriaren egiturazko arazoak errotik konpontzea eta demokraziaren, laiktasunaren eta kulturaren balioak sustatzea zen erreforma haien helburua. Baina proposamen erreformistek aldaketei begira uzkur zen herrialde batekin aurrez aurre topo egin zuten.

Garai hartan aztergai izan ziren gai batzuk berrikusi egin zituen Azañaren ondoko gobernu eskuindarrak, eta kontraerreforma ere egin zuten; Fronte Popularrak egin zuen egoera konpontzeko azken saioa.

Iturria: Ekonomia Nazionalaren Kontseilua.



Iturria: Nekazaritza Erreformatarako Institutua. TAMAMES, R.: La república y la era de Franco. Alianza, Madrid, 1988, 53. or.

Espainiako handikien jabetzak, 1931ko apirilaren 14an

Jabeak	Hektareak
Medinaceliko dukea	74 146
Peñarandako dukea	51 015
Vistahermosako dukea	47 203
Albako dukea	34 455
Comillasko markesa	23 719
Romanako markesa	20 096
Fernan Nuñez dukea	17 732
Arlongo dukea	17 666
Infanterriko dukea	17 171
Romanonesko kondea	15 171
Beste 89 jabe	248 641
GUZTIRA	576 005

2.1. Nekazaritzaren erreforma

Biurteko erreformistan, behin-behineko gobernuaren garaian abian jarritako erreformei jarraipena eman zitzaion, eta praktikan jarri ziren. Nekazaritzaren Erreformatarako Oinarrien Legea, adibidez, ez zen 1932ko irailera arte onartu, batez ere, errepublikazaleen eta sozialisten arteko gorabeherak zirela-eta, baina baita eskuineko kontserbadoreen oposizioaren ondorioz ere. Errepublikazaleek formula moderatuak eta murriztaileak erabili nahi zituzten, eta, sozialistentzat, berriz, gizarte aldaketa bizkortzeko bitarteko behar zuen izan erreformak. Proiektua ezerezean gelditzekotan egon zen, baina Sanjurjoren matxinada zela-eta sortutako krisiari esker, errepublikazaleak eta sozialistak bat etorri ziren. 1932ko maiatzaren eta irailaren artean, beraz, erreformatarako egitasmoa idatzi eta haren eztabaida egin zuten. Proiektuaren puntu nagusiak hauek ziren: erreforma latifundioei soilik ezartzea eta erein gabeko lurren behin-behineko okupazioa bideratzea, lur horiek desjabetu aurretik, Nekazaritza Erreformatarako Institutuak koordinatuta. Erreforma oso mantso jarri zen abian; izan ere, lurjabeak haserre zeuden, lurrak desjabetzeko mehatxua zela-eta, baina baita jornalariak ere, luraren jabetza eskuratzea atzeratzen ari zela ikusita; Errepublikaren lanarekin etsita zeuden nekazariak, eta proposamen anarkista iraultzaileagoetara jo zuten. Eskuindarren biurtekoan, aurreko garai bereko erritmo berari jarraituz aplikatu zuten nekazaritzaren erreforma, baina nabarmena izan zen kontserbadoreek udalerrien legearen kontra egindako oposizioa; lege hori 1934an bertan behera gelditu zen, azkenean.

2.2. Erlijioaren auzia

Erlijioaren auziaren ondorioz, katolikoak eta buruzagi errepublikazaleak elkarrengandik urrundu ziren. 1932ko utarrilean behin-behineko agintaldian hasitako erlijio erreforma bukatu zen, eta Jesusen lagundia desegin zuten. Hego Euskal Herrian, Konstituzioak Errepublika estatu laikoa zela aldarrikatu izana eta Azañak hartutako neurriak erlijioaren balioen kontrako eraso zuzentzat hartu zituzten karlistek. Hori dela eta, joera guztietako karlistek Elkartasun Tradizionalistan bat egin zuten, 1932an. EAJk, Errepublika ezagutzen zuen arren, eskuinarekin lankidetzan jarraitu zuen, Elizaren eskubideen aldeko borrokan.

Nekazaritza erreformaren aplikazioa

Bitartea	Okupatutako hektareak	Finkatutako nekazariak
1932 - 1934	116 837	12 260
1936ko otsaila-ekaina	232 199	71 919

Iturria: Nekazaritza Erreformatarako Institutua. TAMAMES, R.: La república y la era de Franco. Alianza, Madrid, 1988, 53. or.

2.2

Erlijio aitortzen eta kongregazioen legea

«[...] Erlijio bilerak eta adierazpenek ezingo dute izaera politikoa eduki, edonon egiten direla ere.

[...] 4. artikulua. Estatuak erlijio egin-beharrak betetzeko behar dituzten baimenak emango dizkie erakunde armatuetako kideei, betiere Gobernuaren iritzian zerbitzari kalte egiten ez badiote.

[...] 8. artikulua. Erlijio aitortzeko haien barne erregimena nahierara antolatzeko askatasuna izango dute, eta haien arauak aplikatuko dizkiete aitortza horretako elementuei, legeekin bat etortzea beste garrantzi juridikorik gabe, eta Estatuaren burujabetzari eraso gabe.

[...] 20. artikulua. Elizek haien doktrinak irakasteko eta haien ministroak trebatzeko ikastegiak sortu eta zuzendu ahal izango dituzte. Estatuaren ikuskaritzak bermatuko du gune horietan ez dela Errepublikaren segurtasunari erasotzen dion doktrinarik irakasten.

[...] 23. artikulua. Espainiako Konstituzioaren 26. artikuluan arabera onartuta dauden erlijio ordenek eta kongregazioek ezingo dute inolako jarduerara politikorik egin.»

Gaceta de Madrid (1933ko ekainaren 3a), ondorengoan jasoa: DORRONSORO, M.; HERBOSA, A.; ORIVE, Y.: Historia de España y del País Vasco. Argit. EHU, Bilbo, 1998, 182-183 or.

2.3. Autonomiak

a) Estatutu katalana

Madriren Estatutuaren kontrako jarrera nagusitu zen, Estatutu horretan administrazioari eta kulturari buruz, intelektualek proposatuta batez ere, egiten ziren aipamenak zirela eta. Alcala Zamorak onespina eman zion 1932ko irailean, aurreproiektuan hezkuntza eta finantza arloei buruzko zenbait murrizketa eginda. Kataluniako erakunde autonomikoak indarrean jarri ziren, eta autogobernuaren bidetik abiatu zen; Macia izan zen Generalitateko lehendakari, eta Luis Companys parlamentuko lehendakari.

b) Euskal Estatutua

Errepublikazaleek Estatutua idazten parte hartzea zela-eta, behin betiko zatitu ziren, 1931ko abenduan, Nafarroako karlistak eta nazionalistak. 1932ko urtarrilean, Estatutuaren aldeko beste kanpaina bat egin zen; EAJk, zuhurtasunez bazen ere, onartu egin zuen errepublikazaleekin bat egitea, eta ekainean, euskal udalerriek autonomia proiektu berria aurkeztu zuten. Testutik kendu egin zituzten Konstituzio errepublikazalearekiko gorabehera sortzen zuten puntuak, eta Nafarroak eten egin zuen autonomia egitasmoarekiko lotura. Nafarroak atzera egin zuelarik, autonomiaren auzia Arabako, Gipuzkoako eta Bizkaiko herrialdeetan bakarrik landu zuten. Idazketa batzordea 1932ko urrian hasi zen lanean, eta 1933ko abuztuan bukatu



2.3.b Errepublikako lehendakari Alcala Zamora, Eibarrera 1932an egindako bisitan.

zuen haren zeregina. Proiektuak hiru probintzietako udalerri gehienek babesa izan zuten, Arabakoena izan ezik; probintzia horretan nabarmen areagotu zen tradizionalisten indarra. Estatutua onartzeko herri erreferenduma 1933ko azaroaren 5ean egin zen, nahiz eta parlamentu errepublikazalea krisian egon eta hauteskundeetarako deia zabaldu. Hala ere, Gobernuaren aldaketak eta Arabako udalerri gehienek autonomiaren proiektuan parte hartzeari ezezkoak atzeratu egin zuten Estatutua Gorteetan onesteko prozesua.

c) Galiziar Estatutua

Galiziak ere aldarrikatu zuen autonomia eskubidea, eta, horretarako, estatutu proiektu bat prestatu zuten. Udalek 1932an onartu zuten proiektu hura, eta 1936ko ekaineko herri kontsultan berretsi zuten. Nolanahi ere, Gerra Zibila hasi zen, eta horrek eragotzi egin zuen Galiziako Estatutua indarrean jartzea eta hark zioena gauzatzea.

2.3.b Jose Antonio Agirrerren argazkia.




Euskal-nafar Estatutuaren proiektua. Udalerrien Biltzarra. 1932-IV-19

ABSTENTZIOAK

Nafarroa: Abaurrepea Abillas Andosilla Arbizu Aria Armañanzas Arriagoli Artaxoa Azuelo	Bakaiku Barillas Cadreita Castejon Elizagorria Ezkabarte Gazteluberri Goñi Iturmendi	Luzaide Melida Mendaza Oko Olexoa Orreaga Ribaforada Santsoain Sunbilla	Torralba del Rio Torres del Rio Ukar Urdaian Viana Ziritza Zubieta-Hiriberri	Bizkaia: Muzkiz Barrika Durango Lanestosa Abanto Zierbena	Gipuzkoa: Azkoria Añoeta Tolosa
--	--	---	--	---	---

KONTRAKO BOTOAK

Nafarroa: Aburregaina Aberin Barasoain Alesbes Allin Antsoain Añorbe Arakil Aranarabe Araguren Areso Arbe Arraitza Arruazu Artazu Atarrabia	Azagra Azkoien Deierri Deikaztelu Doneztebe Egues El Busto Elo Elortz Eroritz Erorikari Esa Eslaba Etaio Etxarri Ezkaroze Ezporogi	Cortes Fontellas Funes Fustiñana Galar Galpentsu Garaioa Garde Garinoin Girillao Gorza Gulia Ibargoli Imotz Irañeta Irunberri	Fitero Fontellas Funes Fustiñana Galar Galpentsu Garaioa Garde Garinoin Girillao Gorza Gulia Ibargoli Imotz Irañeta Irunberri	Iruñea Itza Itzagaondoa Itzaltzu Labaian Larraza Leatxe Legarda Legaria Lerin Lizoain Lodoso Longida Lukin Mañeru	Mendabia Mendigorría Salidas San Adrian Monteagudo Morentin Murchante Muruzabal Nazar Obanos Olsagabia Odjeta Olaibar Olazti Olló Oitz Oteitza	Piedramillera Salidas San Adrian Santol Sartaguda Sesma Soriada Tiebas Tirapu Tulebras Tutera Uharte Untziti Urzainki Uterga Uztarotz	Uxue Vaiterra Villatuerta Zabaltza Zare Ziordia Zirauki Zuzur Zuiniga Bizkaia: Ermua Gipuzkoa: Belautza Zarautz
--	--	--	--	---	--	--	--



2.4 Alcala Zamora, Eibarko Armagintza Eskolarako bidean.

2.4. Erreforma militarra

Azañaren gobernuak behin-behineko gobernualdian sustatutako erreforma politikokoak ondoeza sortu zuen armadan; ondoez horren isla izan zen «Sanjurjada» delako krisi iraultzailea, alegia. Sanjurjo jenerala izan zen iraultza horren protagonista, Sevillan, eta harekin batera jardun zuten errepublikaren kontra zeuden militarrek; armadaren eta nekazaritzaren erreformen kontra matxinatu ziren, baita Estatutu katalanaren eztabaidaren kontra ere, Espainiaren batasunari erasotzen ziola baitzioten.

Errepublikaren gobernuak estatu kolpea emateko saio hura ezereztu eta Sanjurjo atxilotu zuen; heriotza zigorra ezarri zioten, baina zigor hura baliogabetu eta espetxe zigorra eman zioten, azkenik.

2.5. Hezkuntzaren erreforma

Hezkuntzaren erreforma ezinbestekoa zen herrialdea modernizatzeko. 1931ko Konstituzioaren arabera, nahitaezkoa zen Lehen Hezkuntza, doakoa eta mistoa. Gobernuak bere aurrekontuetako diru asko erabili zuen hezkuntzan, eta ikastetxe asko eraiki zituen, analfabetismoari aurre egiteko. Era berean, Bigarren Hezkuntzan hobekuntzak egin zituzten, eta Unibertsitatean ikerketa arloa sustatu zuten.

2.6. Azañaren gobernuaren krisia

a) Gizarte gatazkak

1932an eta 1933an gertatu ziren gizarte gatazkek larritu egin zuten gobernu errefor-

mistaren krisia eta haren hondamena ekarri zuten. Arnedoko greba, Llobregateko arroko anarkisten matxinada, Jesusen lagundiaren desegitea eta Sanjurjo jeneralaren iraultza izan ziren, 1932an, erregimen errepublikazaleak ezarritako neurrien kontrako eta monarkiaren aldeko gertaera nagusiak. Horrez gainera, 1933ko urtarrilean, anarkisten matxinadak sortu ziren Katalunian eta Andaluzian; Andaluzian, Casas Viejas matxinadaren kontra Erasoako Guardia bideratutako zapalkuntza gogorrek kalte politikoa konponezina egin zion Azañari.

b) Eskuinaren berrantolaketa eta bihurtzeko erreformistaren amaiera

Gizarte gatazken ondorioei, ezker errepublikazalearen kontrako sektoreen bat-egitea erantsi behar zaie. Hain zuzen ere, eskuineko alderdiek berrantolaketa politikoa abian jarri zuten. 1933an, CEDaren —Eskuin Autonomoen Espainiar Konfederazioa— sortze batzara egin zuten Madriren, eta Espainiaren Eraberritzea taldea, estatu kolpearen aldeko talde monarkiko kontserbadorea, sortu zen. Egoera ekonomiko kaskarrak bultzatuta, eta Errepublikako lehendakari Alcala Zamorak laguntza ukatu ziolarik, Azañak dimisioa eman behar izan zuen 1933ko irailean.

Alcala Zamora gelditu zen gobernuaren buru, eta, urrian, Martinez Barriok, erradikala hura ere, hartu zuen agintea. Martinez Barriok Gorteak desegin zituen, eta hauteskunde orokorrak antolatu zituen azarorako. Hauteskunde haietan botoa eman ahal izan zuten, lehen aldiz, emakumeek.

2.6

Casas Viejas gertaera

«Anarkistek 1932aren amaieran deitutako altxamenduak ez zuten ia oihartzunik izan ez Katalunian ez Valentzian. Garrantzi gehiago izan zuten Utreran, Sevillan, eta, batez ere, Cadizko herrialdeko zati handi batean. [...] Nolanahi ere, herrietako agintea hartzeak ez zuten halako gorabehera handirik sortu, Casas Viejas herri txikian izan ezik. Herri horretan, urtarrilaren 10ean matxinatutako nekazariak auzo alkatea haren kargutik kendu zuten, telegrafoko lineak eta telefono-

koak moztu zituzten, eta, bertako lau guardia zibilekin izandako tiroketan, bi guardia hil zituzten. Urtarrilaren 11n gertatu zen hori; berehala iritsi ziren guardia zibil gehiago, baita Erasoako guardiaren talde bat ere. Indar publikoak egoera zuzendu zuten, eta nekazariak soroetan barrena ihes egin zuten; baina anarkista zahar bat, Seihatz esaten ziotena, bere etxean sartu zen, seme-alabekin, ilobekin eta bi auzokorekin. Gauerdian, erasoko talde bat iritsi zen, metrailadorez hornitua, Rojas gidari zuena, eta erasoa antolatuta zuten; egunsentian, guardia erasotzaileek etxea erre zuten. Sarraskia izugarria izan zen; suari ihes egin nahian, bertatik bertara tiro egin zieten guztiei, ihes egitea lortu zuten biri izan ezik. Izugarrikeria gehiago ere izan zen, ordea. Rojasek bi tenienteri agindu zion *razzia* egin zezatela herrian, armak zituzten guztien kontra; armarik bazuten edo ez, hori ez zen inoiz jakin, baina hamabi gizon eraman zituzten, sokaz loturik, eta hantxe hil zituzten Rojasek eta haren guardiek.»

TUÑÓN DE LARA, M.: *La Segunda República*, ondorengoan jasoa: *Historia de España*, IX. alea. Barcelona, 1984, 151. or. ondorengo beste honetan jasoa: DORRONSORO, M.; HERBOSA, A.; ORIVE, Y.: *Historia de España y del País Vasco*. Argit. EHU, Bilbo, 1998, 182. or.

2.4 Sanjurjo jenerala, 1932an.



3. Eskuindarren biurtekoa

Eskuin ez errepublikazaleak koalizio handia osatu zuten, CEDAekin eta monarkikoekin, eta Konstituzioa berrikusteko eta nekazaritzaren erreforma bertan behera uzteko programa bat proposatu zuten. Azaroaren 19ko hauteskundeetan, errepublikazale erradikalak eta CEDA izan ziren garaile, eta ezkerrek hondamen handia izan zuten.

Ezkertiarren biurtekoak akatsek eta anarko-sindikalistek abstentziorako deia egin izanarik ekarri zuten eskuindarren garaipen handi hura. Eskuindarrak 1936. urtera arte egon zuten agintean; Alejandro Lerrouxen Alderdi Errepublikazale Erradikalak eta CEDAk, Jose Maria Gil-Robles buru zuten koalizio konfesional katolikoak, zuten ordezkari gehien gobernuan.

Nolanahi ere CEDA, hauteskundeetan garaile izan zen arren, ez zen gobernuan berehala sartu, ezker erradikalak altxamendua antolatzeke mehatxua egin zuelako; hori dela eta, Lerrouxek, Gil-Roblesen laguntzarekin, erreformaren kontrako politika abian

3.1 Nazien desfilea, Alemanian.



3.1

Faxismoaren eragina nazioartean

«Koalizioak (CEDA) irabazi izana ere garrantzi handiko gertaera izan zen nazioartean, batez ere, Alemanian Hitlerrek eta alderdi naziak agintean zuten gero, 1922tik aurrera Mussoliniren erregimen faxistari jarraituz. Atzerriko ereduari, Italiakoari batez ere, begiratu sortu ziren Espainian haien antzeko ideologia zuten taldeak; adibidez, diktadorearen seme Jose Antonio Primo de Riveraren Espainiako Falangea, edo Erasoko Batzorde Nazional Sindikalista (JONS), 1933an bertan sortuak biak, eta 1934an elkartu zirenak.»

DORRONSORO, M.; HERBOSA, A.; ORIVE, Y.: *Historia de España y del País Vasco*. Argit. EHU, Bilbo, 1998, 174-175. orr.

3.1 Gil Robles, CEDAren mitin batean.



jarri zuten, eta aurreko biurtekoaren lorpen asko deuseztatu zituen. Horrek, eta politikarako ahalmen ezak, hainbat gobernu krisi sortu zituen, eta kolokan jarri zuten erregimenaren egonkortasuna.

3.1. Erreformismoaren kontrako politika

a) Militarren auzia

Gobernu erradikal-zedistak hartutako neurri atzerakoien artean, bereziki nabarmentzekoa izan zen 1932ko abuztuan Sanjurjo jeneralaren estatu kolpea zela-eta espetxeratutako militarrei eta monarkikoei amnistia eman ziena.

b) Nekazaritza arloko kontraerreforma

Era berean, nekazaritza arloko kontraerreforma abian jarri zuten, eta 1932tik egindako aurrerapauso guztiak deuseztatu zituen. Gobernu erradikal-zedistak lehengo jabeen itzuli zizkien lur batzuk, desjabetzeengatik kalte-ordainak igo zituen, eta, horren ondorioz, eragotzi egin zuten nekazariak lurretan finkatzea; horrek guztiak nekazarietako liskarrak areagotu zituen.

c) Autonomien auzia

Katalanek lortu berri zuten autonomiari dagokionez, 1934ko urriko iraultzaren ondoren, Madrilgo gobernuak bertan behera utzi zituen Nuriako Estatutua, Generalitatea eta parlamentua. Euskal Estatutuari dagokionez, bestalde, gobernu erradikal-zedistaren Gorteen onartzeko zegoen, eta 1934ko gertaeren ondorioz, bertan behera gelditu zen hura ere; azkenean, 1936an onartu zen, gerra zibil bete-betean.

3.2. Indar politikoaren berrantolatzea

Indar politiko gehienek berrantolatze prozesuari ekin zioten 1934tik aurrera.

a) Eskuineko alderdien berrantolatzea

Eskuineko alderdiei dagokienez, JONS eta Espainiako Falangea elkartu egin ziren 1934an; martxoan hitzarmena sinatu zuten Espainiaren Eraberritzea alderdiko Antonio Goicoecheak, Juan de Olazabal euskal integristak eta Barrera jeneralak Mussolinirekin. Eskuineko sektore batzuek estatu kolpea ematearen aldeko jarrera zuten. 1934ko apirillean mitin handia eman zuten Gil-Roblesek Escorialen, eta CEDA, eskuineko burgesiaren ordezkaria, Hitlerrek Alemanian egiten zituen moduko manifestazioak imitatu nahian zebilen susmoa hartu zioten ezkertiarrek. Maiatzean, zatiketa gertatu zen Alderdi Errepublikazale Erradikalean, ordura arte alderdi-buru izandako Lerrouxen eta Marcelino Domingoren artean, Marcelino Domingok Alderdi Sozialista Erradikala sortu zuelako.

3.2.a Jose Antonio Primo de Rivera, Espainiako Falangeko buruzagia, bere jarraitzaileekin.



b) Ezkerreko alderdien berrantolatzea

Ezkerreko alderdiei dagokienez, Marcelino Domingoren Alderdi Sozialista Erradikala eta Azañaren Ekimen Errepublikazalea alderdiek bat egin zuten 1934ko apirilean, eta, horrela, apirilean Ezker Errepublikazalea sortu zuten.

3.3. Politika eskuindarraren erradikalizazioa

1934ko ekainean, Konstituzioaren Berme Auzitegiak betoa jarri zion Kataluniako Parlamentuaren lege bati, laborarien kontratuen legeari, hain zuzen ere; nekazari katalanen onurarako lege soziala zen, eta Kataluniako *Lliga* alderdi eskuindarrak sala-

tu egin zuten, konstituzioaren kontrakoa zela eta. Gertaera hark gizarte esangura berezia zuten, ezkerreko lege bat deuseztatzea zekarrelako, eta aginpide zentrala autonomismo katalanari gailendu zitzaiolako. Katalanentzat, gobernu zentralak Kataluniako aginpide autonomoaren burujabetza deuseztatu nahi zuela esan nahi zuten.

Hego Euskal Herrian, eskuindarren gobernuak oligarkiaren eta enpresaburuen aldeko politika egin izana eraso nabarmena izan zen nazionalitate historikoen asmo autonomistentzat. EAJk eta Agirrek argi eta garbi salatu zuten gobernuak eta karlistek autonomien kontrako jarrera zutela, eta behin betiko eten zuten karlistekiko lotura. 1934ko uztaillean, Gobernuak Kontzertu Ekonomikoak kentzeko asmoa zuten zurrumurrua zabaldu zelarik, hiru euskal probintzietako udalerrietan kontzertuak babesteko batzordeak sortu ziren, eta, are gehiago, hiru probintziek batzorde bateratua aukeratzeko erreferenduma egiteko asmoa ere adierazi zuten; gobernu eskuindarrak legez kanpoko jo zuten ekimen hura. 1934ko iraila eta urria bitartean, EAJk sendotu egin zuten gobernu eskuindarraren kontrako jarrera, gobernuan CEDAko zenbait ministro sartzeak zekarren arriskuagatik eta Kontzertu Ekonomikoei ematen ari zitzaizkien trataeragatik. Nolanahi ere, EAJk ez zien ageriko sostengurik eman ezkerreko alderdiei, antikatoliko eta gizarte iraultzaren aldele baitziren.

Eskuindarren politika erradikalizatzea katalanen autonomiaren kontrako kolpetzat hartu zuten. Irudian, Generalitateko lehen presidentea, Frances Macia.

3.3



3.3

Errepublika gobernatzeko baldintzak

«[...] nik diot, eta errepublikazaleek azter eta onar dezaten proposatzen dut, [...] gobernu [erreformista] honek hondoa jo duelarik, CEDAko —Eskuin Autonomoen Espainiar Konfederazioa— eta Nekazaritza-koek ez dutela titulurik agintean egoteko, nahiz eta, kopuruz, Parlamentuan irauteko aski badiren [...]. Guk ez dugu inor egotzi edo aldera nahi Errepublikatik [...]; baina gauza bat da Errepublikan sartzea, eta beste bat Errepublika gobernatzea. Errepublika gobernatzeko, gobernu bati eusteko adinako diputatu kopurua behar da eduki Parlamentuan; baina diputatu horiek hauteskontzietatik errepublikaren ikurrarekin, programa errepublikazale batekin eta errepublikako banderarekin ateratakoak behar dute izan [...]. Ez da zilegi [...]. Konstituzioa eta Parlamentua ez daude erregimena herenegungo bere arerioen esku uzteko.»

Azaña, M.: *Errepublika hobe baterantz*, Madril 1934ko otsailaren 11n egindako diskurtsoa.

3.4. 1934ko urriko iraultza

a) Tentsio giroa nagusi

Ezkerraren eta eskuinaren arteko tentsioa areagotuz joan zen, 1934ko uztaitetik aurrera gertatutako hainbat ekintzaren ondorioz. Hilabete hartan nekazal langileek greba egin zuten, eta hainbat diputatu sozialista atxilotu zituzten; gainera, gobernuak debekatu egin zuen alderdi politikoetan eta sindikatuetan izena ematea, eta euskal udalerriek gobernuaren kontrako batzarra egin zuten, Kontzertu Ekonomikoei eraso zuela eta; eraso horri aurre egiteko, euskal nazionalistak eta sozialistak elkartu egin ziren. Beste alde batetik, irailean jendetza handia bildu zuen CEDAk manifestazio batean, Covadongan.

Nolanahi ere, 1934ko urriko iraultza izan zen Errepublika garaiko gertaera puntual larriena.

Iraultzaren gertaleku nagusiak Asturias, Katalunia (Generalitatek bultzatuta) eta Euskal Herria izan ziren; Madrilen, aldiz, huts egin zuen.

b) Asturiasko eta Kataluniako gertaerak

Gobernuan CEDAko hiru ministro sartu ziren, eta, gertaera horrek Errepublika suntsitzea eta faxismoa ezartzea ekar zezakeen beldur, UGTk greba orokorra antolatu zuen urriaren 5erako; Asturiasen armak hartu zituzten greba hartako partaideek. Urriaren 6an, Companysek Kataluniako Errepublika aldarrikatu zuen, eta hurrengo egunean Estatutua eta Generalitat indargabetu zituzten. Matxinadak huts egin zuen, Lerrouxen gobernuak eta CEDAko hiru ministrok errepresio gogora bideratu zutelako.

Asturiasen armak lehorreratzeko ari zirela jakin zuelarik, Afrikako armadak, Francisco Franco buru zuela, Asturiasko meatzariei eraso zien. Gainera, zenbait ministro, Generalitateko presidentea bera, eta hainbat buruzagi sozialista eta sindikatuetak kide espetxeratu zituzten; eta langile alderdien eta elkarteen egoitza asko itxi zituzten.

c) Iraultza, Hego Euskal Herrian

Hego Euskal Herrian, Alderdi Sozialistak eta UGTk greba orokorrek bat egin zuten, CNTren, PCEren eta SOVren laguntzarekin. EAJk ez zuen parte hartu gizarte gatazka hartan, ez zetorrelako bere xedeekin bat, baina langile klase nazionalistak elkartasuna adierazi zion mugimendu hari.

Gil-Roblesek gogor zapaldu zituen iraultzailak, baina euskal langile erakundeak aurre egin zion.

3.4.c 1934ko matxinada, Eibarren.



3.5. Gobernuaren egonkortasun eza eta biurteko eskuindarraren amaiera

1934ko urriko gertaeren ondorioz, eskuindarren politika erradikalizatu egin zen. Baina ezkertiarrek elkarrengana hurbiltzen hasi ziren, gobernu eskuindarrari elkarrekin aurre egiteko. Hain zuzen ere, 1935eko urrian, Azañak —gerora Fronte Popularra ezkerreko koalizioa izango zenaren aitzindariak— jende olde izugarria bildu zuen Campo de Comillasen. Ezkertiarrek kalera ateratzea zen asmoa. Bestalde, eskuindarren gobernuaren barruan eskandalu handia sortu zen, Lerroux estraperloko auzi batean nahastu zelako. Lerrouxek dimisioa eman behar izan zuen, eta horrek kalte handia eragin zion berari eta bere alderdiari; azkenik, 1935eko urrian agintetik erabat baztertu zuten. Harrezkero, zentroko bi kabinete izan ziren gobernuan, hurrenez hurren; azkenak, Manuel Portella Valladaresenak, hauteskunde orokorrak antolatu zituen. 1936ko urtarrilaren 15ean Fronte Popularra sortzeko hitzarmena sinatu zen, eta hartara bildu ziren ezkerreko joera guztiak, anarkismoa izan ezik. Otsailaren 16ko hauteskundeetan, Fronte Popularra atera zen garaile.

4. Fronte Popularra

Ezkertiarrek ezkerreko alderdi errepublikazaleen koalizio handi batean bilduta (Fronte Popularra) parte hartu zuten 1936ko otsaileko hauteskundeetan; eskuindarrek, berriz, ez zuten haien arteko itunik egin. Fronte Popularraren barruan hainbat alderdi zeuden: Ezker Errepublikazalea, Batasun Errepublikazalea, PSOE, UGT, Espainiako Alderdi Komunista, Gazte Sozialistak, POUM —*Batasun Marxistako Langile Alderdia*— eta Alderdi Sindikalista. Fronte Popularrak irabazi zituen hauteskundeak, baina eskuina oso hurbil zuela. Beraz, parlamentuan ezkerre zen gehiengoan, baina eskuindarrak ere asko ziren. Hego Euskal Herrian, EAJ eta ezkerreko errepublikazaleak izan ziren irabazle Gipuzkoan eta Bizkaian, eta Araban; Nafarroan, aldiz, eskuin tradizionalista karlista nagusitu zen. Fronte Popularrakoen, errepublikazale kontserbadoreen, katalanen, euskal nazionalisten eta erradikalen botoekin, Azaña hautatu zuten Errepublikako lehendakari.

4. Asturiasko Fronte Popularraren kartela.



4.1. Gobernuaren erreformak eta gizarte gatazka

Gobernu berria alderdi errepublikazaleek osatua zen, eta Fronte Popularrakoen gainerako alderdien babesa zuen Gorteetan. Hauek ziren gobernuaren helburu nagusiak: amnistia, eskuineko gobernuaren zapalkuntzaren biktimentzat; Konstituzioa errespetatzea; zergen erreforma moderatua; eta nekazari txikien eta merkatari ez aberatsen baldintzak hobetzea.

Gainera, Kataluniako Autonomia Estatutua berriro indarrean jarri zuten, eta legez



4.1 Jose Calvo Sotelo, eskuin monarkikoaren buruzagia.

kanpo jarri zuten Falangea. Nolanahi ere, 1936ko apiriletik ekainera bitartean, iraultza giroa sortu zen, grebak, okupazioak, armadaren kontrako erasoak, etab. zirela medio. Prentsa proletarioa agintea hartzeko deia egiten ari zen eta, ezkerreko erradikalismoak bultzatuta, indarkeria giroa herrialde guztira zabaldu zen; militarrek eta eskuineko taldeak, berriz, gobernuaren erreformen beldur zirenez, matxinada antolatzen ari ziren bitarte horretan.

4.2. Errepublikaren kontrako konspirazioa

Gorteetan, Jose Calvo Sotelo —eskuin monarkikoaren buruzagia— eta Jose Maria Gil-Robles —CEDAko burua— izan ziren eskuinaren eledun oldarkorrenak. Eskuindarrek Errepublikaren kontra antolatutako konspirazioa prest-prest zegoen, eta Castillo tenientea (ezkertiarra) eta Calvo Sotelo (eskuindarra) hil zituztelarik, gatazka areagotu egin zen.

Martxotik aurrera ziren militarrek matxinada egitekoak; armadako goi kargudunak monarkikoekin eta karlistekin elkartu ziren, Errepublika eraisteko. Nafarroa izan zen konspirazioaren gune nagusietakoa; izan ere, han ziharduen matxinadako buru handienetakoak, Mola jeneralak, eta konspirazioa bideratzeko bitartekoak eskuratzea lortu zuen. 1936ko uztailaren 17an Marokon eta 18an iberiar penintsulan hasi zen «Altamendu Nazionala», Franco jeneralaren gidaritzapean. Altamendu horrek Gerra Zibila ekarri zuen, anaia arteko gatazka, eta hiru urtez zatituta egon zen herrialdea; gerrak esperientzia demokratiko errepublikazalea suntsitu eta Franco jeneralaren diktadura erregimena ekarri zuen.

4.

Fronte Popularra


«Fronte hartan bildutako alderdi guztiek onetsitako gutxiengoaren programak oinarritzeko puntu hauek zituen:

- 1.- Amnistia osoa 1934ko matxinatuentzat eta 1933az gero atentatu politiko-sozialak egiteaz akusatuta zeudenentzat; eta atentatu politikoak zapaltzeko egindako indarkeriazko ekintza guztien errudunak epaitzea.
 - 2.- Lanpostua itzultzea arrazoi politikoengatik haien lanetatik egotzitako langileei eta enplegatu publiko-ek, eta haiek jasandako galera guztien kalte-ordainak ematea.
 - 3.- Konstituzioaren Berme Auzitegia eraberritzea, kutsu kontserbadore oroz gabetzeko; sistema judizialaren erreforma sustatzea, independentziaren aritzeko modua izan dezan, gizarte justizia aldarrika dezan, eta bizkorrago eta eraginkortasun gehiagoz jarduteko modua izan dezan.
 - 4.- Errepublikako Konstituzioaren atal guztien autoritatea ezartzea; Gorteak eta haien batzorde egitura eraberritzea [...].
 - 8.- 1931-33ko gizarte lege guztiak berriro indarrean jartzea; soldatak igotzea, gizarte etxebizitzak eraikitzeko programa zabala abian jartzea; hezkuntza maila guztiatarantz zabaltzea.
- Programa hori sozialdemokrata erreformista zen, funtsean. Gauza asko berretsi bazituen ere, ezker errepublikazalearen jatorrizko joeraz haratagokoa zen alderdi askotan, baina ez zen mintzo garai batean hainbeste buru-hauste sortu zituen elizaren kontrako obsesioaz.»

PAYNES, S.: *La revolución española*. Barcelona, 1977, 188. or., ondorengoan jasoa:
DORRONSORO, M.; HERBOSA, A. ORIVE, Y.: *Historia de España y del País Vasco*. Argit. EHU, Bilbo, 1998, 184. or.

3.4.a Trubiako lantegia (Asturias); fabrika hartako meatzariek armak hartu zituzten 1934ko iraultzan.





5.1.b Juan Ramon Jimenez.

b) 27ko belaunaldia

27ko belaunaldiaren jatorrian Gongoraren estiloa aldarrikatzea helburu zuen olerkari talde bat zegoen. Talde horretan, aipagarri izan zen Federico Garcia Lorca; Lorcak ezaguri klasikoak eta herriarekiko atxikimendua bateratu zituen bere lanetan, eta tradizioa eta modernitatea uztartu zituen estilo berezi bat sortu zuen horrela. 27ko belaunaldiko kide ospetsuak izan ziren, halaber, Jorge Guillen, Damaso Alonso, Rafael Alberti eta Luis Cernuda, besteak beste.

5.2. Kulturaren zabaltzea

Idatzizko komunikabideak kultura zabaltzen laguntzeko tresna ezin hobeak izan ziren. Eguneroko prentsaren ezaugarri izan ziren kalitate bikaina eta informazioen zorrotasuna. Aipagarri dira, besteak beste, *El Sol* eta *La Voz* egunkari liberalak, *El Debate* katolikoa, eta *ABC* monarkikoa. *El Socialista* egunkaria izan zen langileen eta sozialisten eskakizunak zabaltzeko bitarteko nagusia. Prentsa eta literatura irakurtzeko zaletasunak nabarmen egin zuen gora, eta masen kultura bat ezarri zen beste komunikabide batzuen eskutik, irratia eskutik adibidez, informazioa eta dibertimendua eskaintzen baitzuten.

5.2 Kirola izan zen kulturaren zabalkunde bideratu zuen tresnetako bat.



5. Aldaketa sozialak eta kulturalak

5.1. Literatura arloko abangoardiak

Espainiako intelektualek, 98ko belaunaldiko kideek utzitako arrastoari jarraituz, Espainia eraberritzeko eta modernizatzeko bidean aurrera egin zuten, zientzian eta artean, besteak beste.

a) 1914ko belaunaldia

1914ko belaunaldiak herrialdea modernizatzea eta Europako joerak kulturara erakartzea helburu zuen unibertsitateko kide talde bat bildu zuen. Bereziki garrantzizkoa izan zen Jose Ortega y Gasseten lana; ekarpen handiak egin zituen gogoeta filosofikoaren, Espainiaren errealitatearen kritika sozialaren eta kulturalaren, eta proposamen aurre-razalean. Aipagarri dira, orobat, Gregorio Marañon historialari eta saiakera idazlea, eta Manuel Azaña idazle eta politikaria. Guztiek ere era aktiboan parte hartu zuten Errepublikako bizitzan. Kontuan hartzekoak dira, halaber, Ramon Perez de Ayala eta Concha Espina eleberrigileak, baita Ramon Gomez de la Serna eta Juan Ramon Jimenez prosa idazleak ere.

5.1.b Federico Garcia Lorca, Daliren koadro baten aurrean.




5.3. Emakumeen zeregina

Errepublikak emakumeei botoa emateko eskubidea aitortu zuelarik, politikan eta gizarteko beste esparru batzuetan parte hartzeko aukera izan zuten. Garrantzi handiko karguak eskuratu zituzten politikan, Clara Campoamorrek eta Victoria Kentek, esaterako; Errepublikako Gorteetako parlamentari izan ziren, eta horrek aukera eman zien dibortzioaren legeari eta hezkuntzarekin loturiko auziei buruzko eztabaidetan parte hartzeko. Horrez gainera, emakumeak errepublika garaiko aldarrikapen sozial eta politiko batzuetan aitzindari izan ziren; adibidez, Aida de Lafuente komunista, 1934ko iraultzan.

5.4. Arte adierazpenak


Artearen esparruan, garai oparoa izan zen xx. mendearen lehenengo herena.

5.4 Luis Buñuel, abangoardiei ekarpen handia egin zien zinemagilea.



a) Arkitektura eta hirigintza

Arkitekturan eta hirigintzan joera arrazionalista nagusitu zen; eraikinak diseinatzeko. Zeregin horretan, bereziki nabarmendu ziren Fernando Garcia Mercadal, eta GATEPAC taldea. Hego Euskal Herrian, hogeita hamarreko hamarraldian, obra arrazionalista bikainak egin ziren, adibidez, J. Labayenen eta J. M. Aizpuruaren Club Nautico (Donostia), eta Manuel Labordek egindako Laborde Hermanos lantegia (Andoain).



5.4.b Aviñongo neskatxak, Picassoren obra.

b) Arte plastikoak

Arte plastikoetan eragin berezia izan zuten joera erregionalistak, Europako abangoardiek eta modernismoak. Joera erregionalistan, aipatzekoak dira Ignacio de Zuloaga eta Julio Romero de Torres. Abangoardiei dagokienez, bestalde, Pablo Picasso kubismoaren aitzindari izan zen, eta Salvador Dali surrealismoaren ordezkari. Euskal Herrian Aurelio Arteta nabarmendu zen; abangoardia kubistaren hizkuntza aplikatu baitzion bere pinturari. Hogeita hamarreko hamarraldian, abangoardiei eta euskal gizarte berriari lotuago zeuden artistak nagusitu ziren, adibidez N. Lekuona eta J. Olasagasti.


c) Musika

Musikaren esparruan, xx. mendearen lehenengo herenean, Pablo Sarasate, Isaac Albeniz, Manuel de Falla, Joaquin Turina eta Enrique Granadosek, besteak beste, obra bikaina osatu zuten, joera nazionalistaren barruan. Hego Euskal Herrian Jesus Guridiren obra eta hark euskal folkloreak arloan egindako lana dira aipatzekoak.

5.4.c Manuel de Falla.



kontzeptuen eskema



jarduerak

1. Irakurri testua, eta erantzun galderari:



1931ko Konstituzioa

«Espainiak, bere burujabetza erabiliz eta Gorte Konstituziogileak ordezkari dituela, Konstituzio hau agintzen eta berresten du:
Xedapen orokorrak.

1. artikulua.- Espainia askatasunezko eta justiziako erregimen baten arabera antolatutako klase guztietako langileen errepublika demokratikoa da. Haren organo guztien ahalak edo botereak herriak emana dira. Errepublika Estatu integrala da, udalerrien eta eskualdeen autonomiarekin bateragarri dela. Errepublikaren bandera gorria, horia eta morea da.
2. artikulua.- Espainiar guztiak berdinak dira legearen aurrean.
3. artikulua.- Espainiako Estatuak ez du erlijio ofizialik.
4. artikulua.- Gaztelania da Errepublikako hizkuntza ofiziala. Espainiar orok du hizkuntza hori jakiteko betebeherra eta erabiltzeko eskubidea, Estatuaren legeek probintzietako edo eskualdeetako hizkuntzei ezagutzen dizkien eskubideen kalterik gabe. Lege bereziek ezartzen dutenaz kanpo, inor ezin derrigortu ahal izango da eskualdeko inolako hizkuntzarik ezagutzera eta erabiltzera.
5. artikulua.- Errepublikaren hiriburua Madril dago.
6. artikulua.- Espainiak uko egiten dio politika nazionalako bitarteko gisa gerra erabiltzeari.
7. artikulua.- Estatuak nazioarteko zuzenbidearen arau unibertsalak bete, eta zuzenbide positibora erakarriko ditu.»

(1931ko abenduaren 9an onartutako testua), ARMISTO SÁNCHEZ eta beste: Historia de España. Comentario de textos históricos. Port-Royal Didáctica, Granada, 1997, 230. or.

- a) Zer testuinguru politikotan eta sozialetan sortu zen 1931ko Konstituzioa?
- b) Azaldu Errepublikako lehen gorteak osatzeko prozesua eta gorte horien emaitza.
- c) Zein dira testu horren ideia nagusiak? Zer berrikuntza zituen 1931ko Konstituzioak?
- d) Besterik iradokitzen al dizu testu horrek?

2. Begiratu mapari, eta erantzun galderari:

1934ko greba orokor iraultzaileak eragina izan zuen lurraldeak



- a) Kokatu mapa bere testuinguru historikoan.
- b) Azaldu 1934ko urriko gertaera nagusiak.
- c) Maparen arabera, nolako jarraipena izan zuen greba orokorrak? Non izan zuen eragin gehien?
- d) Adierazi ekimen hark zuzeneko zer ondorio ekarri zituen.

3. Begiratu Manuel Azañaren irudiari, eta erantzun:

- a) Kokatu pertsonaia hori bere testuinguru historikoan.
- b) Zer neurri hartu zituen Azañak, Errepublikako gobernuan zela? Zein alditan izan zen gobernuan?
- c) Zerk ekarri zuen haren gobernuaren gainbehera? Izan al zen Errepublikako buru beste inoiz?
- d) Adierazi politikari hark iradokitzen dizkizun beste gauza batzuk.



Manuel Azaña, mitina ematen.

4. Begiratu Jose Antonio Agirre agertzen den argazkiari:

- a) Nor izan zen Jose Antonio Agirre?
- b) Zer egin zuen EAJK Errepublika garaian Autonomia Estatutua lortzeko?
- c) Zer gorabehera izan zituzten nazionalistek gobernu errepublikazaleekin?
- d) Besterik iradokitzen al dizu errepublika garaiko euskal estatutuaren auziak?



5. Irakurri testu hau, eta erantzun galderari:

Emakumea bizitza sozialean eta politikoan txertatzea

«Legedi arkaiko eta zaharkitu batek bakarrik, gaurko garaiekin bat ez letorkeen legedi batek bakarrik, uka diezaioke emakumeari Jabetzaren Erregistroko eta Notariotzako Gorputzetan sartzeko eskubidea.

[...] Ukaezina da, dagoeneko onartezin diren aurreiritzi eta tradizioei eutsi ezean, bi sexueta pertsonen arteko anaitasunezko harremanak aurrerapen nabarmena ekarri duela gure ohituretar, hautazko ikasketei dagokionez eta balio bereko tituluak eskuratzeari dagokionez.

[...] Gogoeta horiek oinarri hartuta, Errepublikako behin-behineko gobernuaren presidente naizen aldetik, eta Justizia Ministroarekin batera.

Erabakitzen dut:

- 1.- artikulua. Emakumeak aukera izango duela Notaritza eta jabetzaren erregistroetan iragartzen diren oposizioetan parte hartzeko eta, plaza eskuratzuz gero, Gorputz horietan sartzeko, bere zereginak gizonen baldintza beretan egiteko eskubidearekin.
- 2.- artikulua. Bertan behera gelditzen dira Dekretu honen kontrako diren xedapen guztiak.

Madrilen emana, mila bederatziehun eta hogeita hamaikako apirilaren hogeita bederatzian.»

Gaceta de Madrid (1931ko apirilaren 30), ondorengoan jasoa: ARMISTO SÁNCHEZ eta beste: Historia de España. Comentario de textos históricos. Port-Royal Didáctica, Granada, 1997, 243. or.

- a) Zer une historikotan ezagutu zen eskubide hori? Zer politikarik sustatu zuten erabaki hori?
- b) Zergatik erabaki zuen Errepublikako gobernuak emakumeen aldeko testu hori ematea? Zer lotura du horrek Konstituzioak emakumezkoen sufragioa onartzearekin?
- c) Zer egoera izan zuten emakumeek errepublikako bizitza politikoan? Nolako egoera izan zuten aurreko garaietan?
- d) Besterik iradokitzen al dizu testu horrek?